



EBALUAZIO-TXOSTENA

AIZARNAZABALGO UDALA



EUSKARAREN PRESENTZIA, ERABILERA ETA KUDEAKETAREN EBALUAZIOA

AURKIBIDEA

1. Atarikoa

2. Erakundearen ikuspegi orokorra

3. Erakundearen ikuspegi xehea: ebaluazio ardatzka

1. Ardatzaren ebaluazioa: Zerbitzu-hizkuntza
2. Ardatzaren ebaluazioa: Lan-hizkuntza

4. Erakundeak lortutako garapen-maila

1. Atarikoa

Ebaluatutako erakundea:	AIZARNAZABALGO UDALA
Txostenaren helburua:	Erakundearen egoeraren berri ematea da, euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketari dagokienez. Horrekin batera, erakundeari aurrera egiten lagunduko dioten proposamenak eskaintzea da, talde ebaluatzaile kualifikatu baten eskutik. Ebaluazio-txostenean puntuazio-tartea ere ematen da, erakunde horrek duen garapen-maila adierazten duena, talde ebaluatzailearen ikuspuntutik betiere. Erakundeak eskura dezakeen ziurtagiria, lortutako puntuazioaren araberakoa da.
Txostenaren edukia:	<p>Txostenak hiru atal ditu:</p> <ul style="list-style-type: none">- Erakundearen ikuspegi orokorra: talde ebaluatzailearen iritziz erakundeak dituen indargune eta zer hobetu aipagarrienak biltzen dira.- Erakundeak lortutako puntuazioa eta garapen-maila: erakundeak euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketari dagokienez, lortu duen mailaren berri ematen da.- Erakundearen ikuspegi xehea: EME osatzen duten bi ardatzak oinarri hartuta, horiek banan-banan zenbateraino garatu diren jasotzen da.
Ebaluazioaren data:	Ebaluazio-eguna: 2019/05/23

TALDE EBALUATZAILEA

NEREA AREXOLALEIBA GAZTELURRUTIA

ZIORTZA POLIN LÓPEZ

JOSEBA PALENZUELA ARRIETA

2. Ikuspegi orokorra

Lehenik eta behin, aipatu beharrekoa da prozesu guztian ebaluatzaileoi egin zaigun harrera egokia: Bisitaldian erakundeko pertsona ugarirekin hitz egiteko aukera izan dugu, eta erraztasunez aritu gara dokumentuak ikusteko garaian. Jasotako informazio horrekin guztiarekin, talde ebaluatzaileak txosten hau burutu dugu, Aizarnazabalgo Udala laguntzeko asmoz:

Talde ebaluatzaileak nabarmendu egin nahi du batez ere 1990az geroztik euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko nahiz kudeatzeko egiten ari den lana, dagoeneko ageriko emaitzak eman dituen.

Aizarnazabalgo Udalak 6 elementuetan goi-mailako garapena du batez beste, nahiz eta elementuen artean alderik badagoen.

PUNTUAZIOA ETA GARAPEN-MAILA

Orrialde honetan erakunde honek 2019ko ebaluazioan lortu duen puntuazioaren berri ematen da. Puntuazioa berrogeita hamarreko tartetan emana dago:

**ERAKUNDEAK LORTUTAKO PUNTUAZIOA, GUZTIRA:
900-949**

AZALPENA ARDAZKA

Ezkerreko zutabearen ardatz bakoitzean lortutako garapen-maila ageri da, ehunekotan adierazita. Erdiko zutabearen, berriz, ardatz hori osatzen duten epigrafe nagusiak daude, eta ondoan, horietan lortutako garapen-maila, ehunekotan.

1. ARDATZA: 1. ARDATZA: ZERBITZU-HIZKUNTZA		%
70-100	1. Erakundearen irudia	70-100
	2. Bezeroekiko (pertsona fisikoak) edo herritarrekiko harremanak	70-100
2. ARDATZA: 2. ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA		%
70-100	3. Barne-Komunikazioa eta lan-tresnak	70-100
	4. Pertsonen kudeaketa	70-100
	5. Kanpo-harremanak	70-100
	6. Kudeaketa-sistema	70-100

Laburbilduz, eta ebaluazio-prozesu osoan zehar eskuratutako informazioa oinarri hartuta, talde ebaluatzaile honen iritziz hauek dira Aizarnazabalgo Udalak dituen 3 indargunerik

garrantzitsuenak:

Euskara erabilera arrunteko hizkuntza da udal langileentzat eta ordezkarietzat:

Ezagutza eta erabilera modu egokian uztartuta daude. Horrez gain, udal langileek eta ordezkariak, euskararekiko duten atxikimenduari esker, eguneroko eginkizun eta harremanetan, **euskara modu naturalean** erabiltzen dute bai zerbitzua eskaintzerakoan, eta bai lan egiterakoan. Lanpostu guztiek daukate ezarrita derrigortasun data, eta langile guztiek egiaztatuta dute bere lanpostuari dagokion hizkuntza eskakizuna. Hortaz, hizkuntza gaitasuna bermatuta dago, eta gainera sortze-hizkuntza nagusiki euskara da. Hizkuntza zeharkako gaia izanik, bere kudeaketa erakundeko ordezkari eta arduradunen erantzukizuna da: udal langileek eta ordezkariak xehetasun osoz ez bada ere, oro har, bere egin dituzte erabilera planean jasotako irizpideak.

Aizarnazabalgo ezaugarri soziolinguistikoetara modu egokian uztartuta:

Aizarnazabal herri euskalduna da (% 87,2) eta Aizarnazabalgo Udalak modu koherentean aintzakotzat hartzen ditu herriaren ezaugarri soziolinguistikoak euskararen erabilera eredugarri izanik. Euskararen Erabilera Arauzkotezko 10/1982 Oinarrizko Legeak xedatutakoaren arabera, herri agintek hizkuntzaren alorrean dituzten betebeharez gain, hizkuntza-eskubideak herritarrenak direla jasotzen da. Beraz, herri-administrazioei dagokie eskubide horiek betetzen direla bermatzea. Azken batean, euskarak ere zerbitzu-hizkuntza behar du izan herritarrekiko hartu-emanetan; lan-hizkuntza, herri administrazioen arteko komunikazioetan eta herri-administrazio barruko jardunean. Izan ere, herritarrak eurek hautatutako hizkuntzan artatuak izango direla bermatzeko modurik eraginkorrena da euskaraz normaltasunez lan egiten duten herri-administrazioa lortzea eta Aizarnazabalgo Udalaren kasuan, aipatutakoak betetzen dira.

Aizarnazabalgo Udalak egindako ibilbidea:

Gaur egun, EAEko herri-administrazio eta erakundeetan euskararen erabilera normalizatzeko VI. Plangintzaldian badaude ere, lehen urratsak aspaldikoak dira: 1990ean abiatu zuten lehen plangintzaldia. Halaber, sorreratik da UEMAko kidea: hizkuntza-politika aurrerakoiak bultzatu dira elebitasun simetrikoak gaindituz eta Aizarnazabalgo errealitate soziolinguistikora modu egokian egokituz.

Bestetik, hauek izan daitezke erakundeari aurrera egiten gehien lagun diezaioketen palankak, erakundearen beraren lehentasunak, errendimendua (eragin biderkatzailea) eta egingarritasuna aintzat hartuta:

Udal barruko erabilera planaren, euskara sustatzeko ekintza planaren (ESEP) eta Bikain ziurtagiriaren inguruko komunikazioa bermatzea.

Jarraipen Batzordeko kideez gain, interesgarria iruditzen zaigu gaineratiko langileei, ordezkariak eta interes taldeei goian aipatutako gaien inguruko informazioa helaraztea: erabilera planaren helburu estrategikoak, urteko ekintza garrantzitsuenak, erronkak, jarraipenen emaitzak etab. maiztasun jakinez, modu sistematikoan komunikatzea.

Hornitzaileen inguruko irizpideei jarraipena egitea.

Irizpideetan horrela jasota badago ere, oraindik, salbuespenak edo desbiderapenak gertatzen direnez, Udalarik zerbitzua ematen dioten hornitzaileei euskarazko zerbitzuen eta produktuen eskaria bideratzea eta ondoren hauen jarraipena egitea egokia litzateke. Besteak beste, honako hauei:

Gertuko enpresa txikiei: fakturak gaztelaniaz bidaltzen dituztenez, agian, laguntza gisa faktura ereduren bat helaraziz, hauek euskaraz bidaltzeko saiakera egitea egokia litzateke.

Zerbitzu enpresak: informatikako eta fotokopiagailueen hornitzaileei adibidez, ekipamendu berriak erostean edo bertsioak eguneratzean, defektuz, euskarazkoak izango direla eskatzea eta ziurtatzea.

Langileek jasotzen dituzten agiriak eta prestakuntza: euskarazkoak izango direla bermatzea.

Irizpideetan agiriak euskaraz jasoko dituztela aipatzen den arren, oraindik, zenbait inprimaki gaztelaniaz erabiltzen dira. Txosteneko laugarren elementuan, Pertsonen Kudeaketa atalean, lagungarriak izan daitezkeen estekak txertatu ditugu. Prestakuntzari dagokionez HAEeko/IVAPeko hainbat prestakuntza/ikastaro gaztelaniaz izaten direnez, hauek euskaraz jasotzeko eskaria egitea aholkatzen dugu. UEMAKo kidea izanik, abian duten lanketa horri eustea aproposa iruditzen zaigu; izan ere, Udal Euskaldunen Mankomunitatea hainbat udalek osatzen dutenez, modu bateratuan, sinergiak batuz, eraginkorra izan daitekeela uste dugu.

Amaitzeko, ebaluatzaileok gure esker ona adierazi nahi diegu ebaluazioan parte hartu duten pertsona guztiei beren prestasunagatik eta erakundea bertatik bertara ezagutzeko eman diguten aukeragatik. Espero dugu hemen jasotako guztiak Aizarnazabalgo Udalarentzat baliagarriak izatea, euskararen presentzia eta erabilera sendotzeko.

3. Erakundearen ikuspegi xehea: ebaluazioa arnazka

1. Ardatzaren ebaluazioa: 1. ARDATZA: ZERBITZU-HIZKUNTZA

ATRIBUTUAK: GARAPEN MAILA						
ELEMENTUAK	HEDADURA			SENDOTASUNA		
	0-39	40-69	70-100	0-39	40-69	70-100
1. Erakundearen irudia			X			X
2. Bezeroekiko/Herritarrekiko harremanak			X			X

1. Erakundearen irudia:

Indarguneak

- Hizkuntza irizpideak ezarrita dituzte, eta euskarari lehentasuna ematen zaio bai ahoz, bai idatziz.
- Herritarrek hizkuntza paisaia berezko hizkuntzan izatea bermatua dute. Izan ere, Udalaren ardurapeko errotulazioa nagusiki (% 95) euskaraz dago. Ohar-taulan jartzen diren GAOko iragarkiak salbu, horiek ele bietan daude.
- Iragarkiei dagokionez, euskaraz daude gehientsuenak eta aldizkari ofizialetara doazenak, ele bietan. Jendaurreko ekitaldi gutxi egiten badira ere, egiten direnak euskaraz egiten dira. Irizpideak jasota daude Euskararen erabilera normalizatzeko planean 1.2 puntuan. Sortze-hizkuntza euskara da eta hizkuntza-kalitatea bermatzeko baliabideak dituzte (UEMA).
- Udaleko webgunean oinarrizko informazioa euskaraz dago eta kanpoko estekak euskarazko bertsioetara bideratuta daude. (www.osanet.net izan ezik). Gaur egun sare sozialik ez duten arren, irizpideak finkatuta daude.

Zer hobetuak

- Aldizkari ofizialetara bidaltzen diren iragarkiak ohar taulan edo jendaurrean jarri behar direnean, gaineratiko inprimaketarako dauden irizpideekin koherentzia mantentze aldera, egokia litzateke euskara hutsezko bertsioan inprimatu eta hala jartzea jendaurrean
- www.osanet.net webguneako estekak Osalaneko gaztelaniazko bertsioa irekitzen du. (Iruditzen zaigu akatsa dagoela: estekak webgune hau zabaldu beharko lukeela: http://www.osakidetza.euskadi.eus/r85-ckserv01/eu/contenidos/informacion/orain_servicios_internet/eu_orain/internet_zerbitzuak.html)
- "Herria ezagutu" atalaren barruan, "datoak, demografia, etab." akats txiki bat dago: datoak beharrean, datuak jarri beharko luke.

2. Bezeroekiko/Herritarrekiko harremanak:

Indarguneak

- Euskararen Erabilera Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legean jasotakoa betez,

Aizarnazabalgo Udalak bezeroekiko (pertsone fisikoak) / herritarrekiko euskarazko harremana bermatzen du: herritarrek euskaraz jasotzen dituzte idatzi ofizialak eta herritarren eskura dauden inprimakiak euskara hutsez daude, oro har. Sortze-hizkuntza nagusiki euskara da. Euskarazko idatzi-eskaerei euskaraz erantzuteko gaitasuna bermatuta dago eta hizkuntza-kalitatea beraien ezagutzaren arabera da.

- Aipagarria da Aizarnazabalgo udal-langileek euskara modu naturalean erabiltzen dutela zerbitzua eskaintzerakoan eta lan egiterakoan. Horren adierazle dira telefonoz edo aurrez aurre jasotako euskarazko eskaerei euskaraz erantzuten zaiela salbuespenik gabe. Lehen hitza euskaraz egiteaz gain, elkarrizketa bera euskaraz izateko ahalegina egiten dute, betiere, herritarren hizkuntza-eskubideak errespetatuz. Irizpideak finkatuta daude Euskararen Erabilera Normalizatzeko VI. plangintzaldirako: Aizarnazabalgo egoera soziolinguistikoarekin koherenteak dira; izan ere, % 87,2 da euskalduna.

- Udal langileek adierazi dute Aizarnazabalen Udalak zerbitzua euskaraz ematea derrigorrekoa dela, eta hori barneratuta dute.

Zer hobetuak

- Udalak eskaintzen dituen ikastaroak: Aizarnazabalgo Udalak eskaintzen dituen ikastaroak euskaraz eskaintzen dira herriko ezaugarri linguistikoekin bat eginez. Gainera, horrela jasota dago erabilera planeko irizpideetan. Hala ere, ikastaroen informazioa edo publizitatea egiten denean, parte-hartzaileen artean gaizki ulertuak saiheste aldera, egokia izan daiteke ikastaroa euskaraz emango dela jakinaraztea.

2. Ardatzaren ebaluazioa: 2. ARDATZA: LAN-HIZKUNTZA

ATRIBUTUAK: GARAPEN MAILA						
ELEMENTUAK	HEDADURA			SENDOTASUNA		
	0-39	40-69	70-100	0-39	40-69	70-100
3. Barne-Komunikazioa eta lan-tresnak			X			X
4. Pertsonen kudeaketa		X				X
5. Kanpo-harremanak			X			X

3. Barne-Komunikazioa eta lan-tresnak:

Indarguneak

- Udalaren lan-hizkuntza euskara da, bai ahoz, bai idatziz; horretarako, Udalak jarraibide zehatzak jasotzen ditu bere hizkuntza irizpideetan.
- Udalak udal langileek beraien artean euskaraz egitea sustatzen du; izan ere, horrek herritarren hizkuntz aukeran eragiten du.
- Oro har, udaleko errotulazio txikia (armairu, apal, karpeta, artxiboak, horma-irudiak...) euskaraz daude. Irizpideak jasota daude Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planean.
- Euskarako baliabide informatikoak eskura jarriz gero, langileek nahikoa gaitasun dute euskaraz erabiltzeko.

Zer hobetuak

- Fotokopiagailuak: udaletxekoa euskaratuta dago eta kultur-etxekoa berriz, ingelesez eta gaztelaniaz dago. Egokia litzateke hornitzaileei eskaria bideratzea: zenbait fotokopiagailuk euskarazko softwarea eskaintzen baitute (Modeloaren eta markaren arabera). Berriak erosten direnean, merkatuan dauden aukerak aztertzea gomendatzen dugu.(NEREA AREXOLALEIBA)
- Irizpideetan jasota dago euskarazko bertsioak egonez gero, hauek instalatuko direla. Pare bat ordenagailutan irizpidea betetzen ez denez, egokia litzateke baliabide informatikoen jarraipena egitea eta berriak erostean edo bertsioen eguneraketetan hizkuntzaren irizpidea kontuan hartzea.
- Jarraian azaltzen ditugun bi puntuak lagungarriak izan daitezkeelako txertatu ditugu: Egokia litzateke euskarazko softwarearen berri zabaltzea langileen artean. Horrela, egun euskaraz jar daitezkeenak ezagutzeaz gain, bakoitzak berea euskaratzeko aukera izan dezake. Hona hemen esteka: <http://www.euskadi.eus/euskarazko-softwarea-deskargatzea/web01-a2eutres/eu/> Aurreko puntuaren haritik, euskarazko baliabideen zabalkundea egitea aztertzea proposatzen dugu: baliabideen bilduma osatu eta hauen zabalkundea egitea aukera interesgarria izan daiteke. Udal langileentzat ez ezik, aukera polita izan daiteke udaleko webgunean, euskararen atalean, adibidez, hainbat tresna eta baliabideren berri ematea. Hona hemen hainbat baliabide: <http://www.euskadi.eus/hiztegiak-banku-terminologikoak-eta-entziklopediak/web01-a2eutres/eu/> <https://www.modela.eus/eu/itzultzailea> <http://www.itzultzailea.euskadi.eus/traductor/portaleXterno/text.do> <https://euskaraldia.eus/baliabideak-2/> <http://www.euskaraz.org/idazkiak/?o=2> <http://www.donostiaeuskaraz.eus/omerkatari/LanerakoIdazkiak2006.pdf> Gainera,

Aizarnazabalgo Udala UEMAk kidea denez, gune pribatura sartzeko erabiltzaile eta pasahitza dauzka (UEMAko teknikariari galdetzea aholkatzen dizuegu). Gune pribatuan, modu bateratuan, eskuragarri daude hainbat eredu/inprimaki.

4. Pertsonen kudeaketa:

Indarguneak

- Lanpostu guztiek ezarrita daukate lanpostuari dagokion hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-datak. Gainera, Udalak ezarrita ditu lanpostu eta kontratazio berrietarako zein ordezpenerako irizpide zehatzak eta, horrela, lanpostuetan dauden aldaketak gorabehera, euskara gaitasuna beti egongo da bermatuta. Horrez gain, hautaketa probetan hautagaiek lanpostuaren funtzioak euskaraz zein gaztelaniaz betetzeko gaitasuna dutela bermatzeko, probak egitea aurreikusita dago irizpideetan.
- UEMAk, besteak beste, lanketa bat abian du HAEE /IVAPekin ikastaroen euskarazko eskaintza areagotzeko
- Udalak eta udal-langileek aukera dute edonolako ikastaroak euskaraz egiteko.

Zer hobetuak

- Gizarte Segurantzako altak eta bajak, kotizazio-agiriak eta kontratuak gaztelaniaz egiten dira. Irizpideetan jasota dagoena betetzeko, egokia litzateke euskarazko ereduak erabiltzea. Egia da Gizarte Segurantzako webgunean eguneraketak egiten dituztenean, beti ez dela erraza izaten euskarazkoak aurkitzea, hala ere, baliagarriak izan daitezkeelakoan, hona hemen zenbait eredu:(NEREA AREXOLALEIBA)
- Gizarte Segurantzako hainbat izapide: http://www.seg-social.es/wps/portal/wss/internet/InformacionUtil/44539/44113?1dmy&urile=wcm%3apath%3a%2FPOIN_Contenidos_eu%2FInternet%2F39715%2F44539%2F
- Gizarte Segurantzako kontratu ereduak: <https://mega.nz/#F!kVRD3SgK!xeRrwjMSWgFzxudE4ao2kA>
- Lanbideko ereduak: <http://www.lanbide.euskadi.eus/enpresak/-/informazioa/lan-kontratuak-kontratu-ereduak/>
- 4.1 atalean hautaketa-prozesua jasotzeaz gain, ondo legoke EMeko gaineratiko elementuei buruzko irizpideak txertatzea: langile-etorri berrientzako protokoloa, langileek jasotzen dituzten agiriei buruzko irizpideak, etab.
- HAEEK (IVAPek) antolatzen dituen hainbat ikastaro gaztelaniaz izan direnez, UEMArekin martxan duten lanketa baliatuz, euskarazko prestakuntza sustatzeko neurriak zehaztea eta garatzea egokia litzateke.

5. Kanpo-harremanak:

Indarguneak

- Euskararen erabilera normalizatzeko planean jasota daude idatzizko harremanei buruzko irizpideak: gaztelania hutsezko agiria bidaliz gero, udalean sarrera eman eta idazki horren kopia bat bueltatu egingo da gutun batekin batera. Gutuna euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da, euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 8. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, jakinarazpen administratiboak euskaraz ere jaso nahi direla adieraziko da. EAeko lurralde esparruan kokatutako

estatuarentzako eta beraren mendeko administrazioentzako komunikazio administratiboetan ere euskara erabiliko da beti, 10/1982 legeari kalterik egin gabe. Administrazio hauengandik gaztelaniaz jasotako idazkien kasuan, udalean sarrera eman eta idazki horren kopia bat bueltatu egingo da gutun batekin batera. Gutuna euskaraz eta gaztelaniaz idatziko da, euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak 8. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, jakinarazpen administratiboak euskaraz ere jaso nahi direla adieraziko da.

- Udalak zehaztuta ditu kontratazioetarako hizkuntza klausulak. Erakunde pribatuak identifikatuta dituzte eta oro har, modu naturalean, aukera dagoenean euskarazko harremanak dituzte ahoz zein idatziz. Hala ere, badaude salbuespen batzuk: herriko enpresa txikietatik jasotzen dituzten gaztelaniazko fakturak.

Zer hobetuak

- Hornitzaileekiko harremanetan ez dago sistematizatuta hizkuntza klausulen jarraipena; hortaz, egokia litzateke jarraipenerako moduak zehaztea eta gertatzen diren desbideraketak zuzentzeko ekintzak abiatzea. Alde batetik, gertuko enpresa txikiek fakturak gaztelaniaz bidaltzen dituztenez, agian, laguntza gisa, faktura ereduren bat helaraziz, hauek euskaraz bidaltzeko saiakera egitea egokia litzateke. Bestetik, zerbitzu enpresen kasuan, informatikako eta fotokopiagailuen hornitzaileei adibidez, ekipamendu berriak erostean edo bertsioak eguneratzean, defektuz, euskarazkoak izango direla eskatzea eta ziurtatzea.

6. Kudeaketa-sistema:

Indarguneak

- Hizkuntzen kudeaketarako duten planteamenduak bere osotasunean eragiten dio Udalari: langilegoari dagokionez, Udal lanpostu guztiek ezarrita dute hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasun-data. Ondorioz, lanean hasi aurretik, dagokion hizkuntza-maila egiaztatzen denez, euskaraz lan egiteko gai dira. Hizkuntza-irizpideak finkatuta daude eta hauen komunikazioa egiteaz gain, diagnostikoaren eta helburuen berri ere eman zitzairen. Udalak Hizkuntza-politikari dagokion zeharkako ikuspegia txertatua dauka. Langileek, zehaztasun osoz ez bada ere, barneratuta dituzte hizkuntza irizpideak, eta bere gain hartu dute bakoitzaren jardunean (ahoz zein idatziz) horiek txertatzea. Aipagarria da Udaleko sortze-hizkuntza euskara izatea (% 95) eta maiztasunez erabiltzen diren euskarazko dokumentuetan duten estandarizazio maila altua. Langileen berezkitasunak eta erakundearen planak bat egiten dute modu koherentean: ezagutza-maila eta erabilera modu egokian uztartu dira. Irizpideen berri emateko langile berrientzako protokoloa finkatuta dago (UEMAk bilera egiten du irizpideen eta euskararen inguruko hainbat informazio emanez).


- Udal ordezkariak ere barneratuta dituzte hizkuntza-irizpideak. Hizkuntzen kudeaketaren planteamendua gauzatzeko baliabideak dituzte: Erabilera Planaren jarraipena egiteko batzordean arduradun politikoez, udal langileek eta UEMAko teknikariak parte hartzen dute. Esan beharra dago hizkuntza-irizpideen betetze-maila oso altua dela (% 92), ziurrenik, lehenago aipatu dugun berezkitasunak eraginda; izan ere, euskaraz modu naturalean jarduten dute. Udalak hainbat hitzarmen eta lanketa ditu bestelako erakundeekin (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia...) euskarazko komunikazioak sustatzeko eta euskararen normalizazioan sinergiak batzeko.

Zer hobetuak

- Irizpideak finkatuta eta zehaztasunez jasota dauden arren, iruditzen zaigu udal barruko erabilera planaren eta Euskara Sustatzeko Ekintza Planaren inguruko komunikazioa bermatzeko moduak aztertzea egokia litzatekeela: Jarraipen Batzordeko kideez gain, urteko helburuak, ekintzak, erronkak, adierazleen bidez lortutako emaitzak, etab. maiztasun jakin batekin gaineratiko langile eta interes taldeei jakinaraztea, alegia.

4. Erakundeak lortutako garapen-maila

Zure erakundeak lortutako puntuazio absolutua elementuka (urdinez) eta elementu horren gehienezko puntuazio absolutua (laranzjaz), EME-ren arabera





HAMAIKA HITZETAN

AIZARNAZABALGO UDALA

Erakunde honek **GOI MAILA** egiaztatu du BIKAIN ereduaren arabera egindako kanpo-ebaluazioan. Eredu honen bitartez euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa neurtzen dira, eta ebaluazioa BIKAIN Ebaluatzaile Klubeko kideek egiten dute.

Ziurtagiri honen bidez, EUSKO JAURLARITZAK maila hau lortzeko erakundeak egindako lana aitortu nahi du, eta euskararen erabilera areagotzeko bidean aurrera jarrai dezaten animatu nahi ditu zuzendaritzako kideak eta gainontzeko langileak.

Donostia, 2019ko abenduaren 11

BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI
Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua

Euskadi, auzolana

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO